

# XEDAPEN OROKORRAK

## LEHENDAKARITZA

### 5600

*48/2020 DEKRETUA, abenduaren 28koa, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen dekretua aldatzen duena.*

Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak berregituratu zituen, Jaurlaritzaren Programa modu eraginkorrean burutu ahal izateko.

Dekretu hori onartu zenetik igarotako denboraren ostean, zenbait akats eta zehaztugabetasun ikusi dira, bai eta sailei esleitutako gaietan eta arloetan hobetu daitezkeen eremuak ere. Hori dela eta, egoki da edukian zenbait egokitzapen egitea, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren eskumen- eta kudeaketa-eremuetan arrazionaltasun- eta eraginkortasun-helburuak lortzeko.

Dekretu honetan aldaketa hauek jasotzen dira:

– «Animaliak babestea» jarduera-arloa, lehen Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren barruan zegoena, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren eskumen-eremuaren parte izatera igaro da, arlo hori egokiagoa eta sinergikoagoa delako sail horri esleitutako eginkizun eta jardun-arloekin.

– Osasun Sailaren jardun-arloei dagokienez, osasun publikoari eta elikagaien higieneari buruzko terminologia aldatu da, eta, horren orde, elikagaien eta animalien osasuna babesteari buruzko aipamena jarri da.

– «Droga-mendekotasunak» jarduera-arloa kendu da, Osasun Sailean txertatuta dagoena, sail horrek «adikzioak» jarduera-arloa ere esleitura duelako, aurrekoa barne hartuko lukeena.

– Zuzendu egiten da 13.1 artikuluko r) apartatuaren gaztelaniazko idazketan antzemandako akatsa.

– Fundación Basque Team Fundazioari izen zuzena ematen zaio.

Horregatik guztiagatik, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8.c) artikulua ematen dizkidan ahalmenak baliatuz, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

Lehenengo artikulua.– j bis) apartatu berria eransten zaio 18/2020 Dekretuaren 8. artikuluko 1. paragrafoari (18/2020 Dekretua, irailaren 6koa, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen). Honela geratuko da idatzita:

«j bis) Animaliak babestea.»

Bigarren artikulua.– Aldatu egiten da 18/2020 Dekretuaren 12. artikuluko 1. paragrafoko b) apartatua (18/2020 Dekretua, irailaren 6koa, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen). Honela geratuko da idatzita:

«b) Elikagaien eta animalien osasuna babestea.»

2020ko abenduaren 31, osteguna

Hirugarren artikulua.– Ezabatu egiten da 18/2020 Dekretuaren 12. artikuluko 1. paragrafoko e) apartatua (18/2020 Dekretua, irailaren 6koa, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen).

Laugarren artikulua.– Zuzendu egiten da 18/2020 Dekretuaren 13. artikuluko lehen paragrafoko r) apartatua gaztelaniaz antzemandako akatsa (18/2020 Dekretua, irailaren 6koa, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen). Honela geratuko da idatzita:

«r) Promoción de las condiciones que faciliten la libertad afectivo-sexual.»

Bosgarren artikulua.– Ezabatu egiten da 18/2020 Dekretuaren 13. artikuluko 1. paragrafoko v) apartatua (18/2020 Dekretua, irailaren 6koa, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen).

Seigarren artikulua.– Aldatu egiten da 18/2020 Dekretuaren 14. artikuluko 2. paragrafoa (18/2020 Dekretua, irailaren 6koa, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen). Honela geratuko da idatzita:

«2.– Sail honi atxikitzen zaizkio "Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakunde / Instituto de Alfabetización y Reeskaldunización de Adultos (HABE)" eta "Euskadiko Liburutegia" erakunde autonomoak; "Euskal Irrati Telebista / Radio Televisión Vasca (EITB)" eta "Instituto Vasco Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute" zuzenbide pribatuko ente publikoak; "Euskadiko Orkestra SA / Orquesta de Euskadi SA" sozietate publikoa; eta "Fundación Basque Team Fundazioa" eta "Fundación Joven Orquesta de Euskal Herria-Euskal Herriko Gazte Orkestra Fundazioa" sektore publikoko fundazioak.»

## XEDAPEN IRAGANKORRA

Dekretu hau indarrean jartzen denean bideratzen ari diren administrazio-espeditentak dekretu horretatik eratorritako egitekoen eta antolamenduaren banaketaren arabera ebatziko dira, baldin eta Dekretuaren edukiak organikoki eragiten badie.

## AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Dekretu honetan xedatutakoa betetzeko beharrezkoak diren aurrekontu-eragiketak burutuko ditu Ogasun eta Finantza Sailak.

## AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko abenduaren 28an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.